




EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
25 URTEURRENA ANIVERSARIO



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun legebiltzar taldeok, Legebiltzarraren Araudiak adierazitakoari jarraituz, Euskaldunon Egunkariaren aurkako prozesuari buruzko legez besteko proposamen hau aurkezteko ohorea dugu, Osoko Bilkurak presazko prozeduraz eztabaida dezan.

ZIOAK:

2003ko otsailaren 20an, Auzitegi Nazionaleko epaile batek *Euskaldunon Egunkaria* kazeta-saso hartan euskaraz argitaratzen zen eguneroko bakarra- kautelazko neurri baten bitartez ixtea erabaki zuen. Neurri horrekin hasi zen prozedura penalean hemeretzi lagunari egotzi eta behin-behinean espetxeratu ere egin zituzten. Horietatik zazpi oraindik auziperaturik daude gaur egun.

Prozedura hasi zenetik urte bi eta erdi joan dira, baina, gaur egun, ezerk ez du bere sasoi hartu ziren erabaki judizial gogor haiek oinarritzen: ideologia terrorista hedatzen lagundu izaneko akusazioa espekulazio hutsa baino ez da. Askatasun-gabetzea, kautelazko neurri gisa, bereziki sendoak diren oinarriekin baino ez daiteke har ordenamendu politikoaren eta bake sozialaren oinarri nagusizat pertsonaren garapen askea duten erregimen politikoetan. Hedabide bat ixteak, bestetik, demokraziaren oinarrietako bat den adierazpen eta informazio-askatasuna kolokan jartzea dakar.

Askatasun-gabetzea garrantzi bereziko neurria da nortasunaren garapen askea ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarritzat jotzen duen edozein erregimen politikotan. Ondorioz, kautelazko neurri gisa har daiteke soilik, betiere delitua leporatzeko funtsak bereziki sendoak baldin badira. Bestalde, komunikabide bat ixteak demokraziaren oinarri nagusietariko bat kolokan jartzen du: adierazpen eta informazio askatasuna, hain zuzen ere.

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, a tenor de lo establecido en el Reglamento de Funcionamiento de la Cámara, tienen el honor de presentar la siguiente Proposición no de Ley para su debate en Pleno con carácter de urgencia, en relación al proceso contra Euskaldunon Egunkaria.

ANTECEDENTES:

El 20 de febrero de 2003 un Juez de la Audiencia Nacional ordenó el cierre cautelar del diario *Euskaldunon Egunkaria* -a la sazón el único íntegramente escrito en euskera- dando inicio así a un procedimiento penal en el que diecinueve personas fueron imputadas, inculminadas e incluso provisionalmente privadas de libertad. Siete de ellas todavía hoy siguen encausadas.

Transcurridos ya dos años y medio desde su inicio, la tramitación del procedimiento no ofrece, hoy por hoy, evidencia alguna que justifique la adopción de decisiones judiciales tan duras como las adoptadas. Hasta la fecha, nada se ha acreditado en la causa que convierta en certeza la acusación, hasta hoy meramente especulativa, de haber constituido una estructura de información que facilita la difusión de la ideología terrorista.

La privación de libertad constituye una medida que entraña especial gravedad en todo régimen político que erija el libre desarrollo de la personalidad en uno de los principales fundamentos del orden político y de la paz social. En consecuencia, sólo puede adoptarse, como medida cautelar, sobre la base de fundamentos inculminatorios especialmente sólidos. Por su parte, la clausura de un medio de comunicación hace tambalearse a uno de los pilares fundamentales de la democracia: La libertad de expresión y de información.



ETA erakundeak giza eskubideen kontra eginiko erasoak gaitzetsi ondoren, Amnistía Internacional erakundeak hauxe ere adierazi zuen: "Egunkari bat ixtea eta haren produkzioan diharduten pertsonak atxilotzea ekintza larriak dira, adierazpen-askatasuna den oinarrizko eskubidean kalteko ondorio nabarmenak dutenak. Horregatik, egingo den ikerketa judicialak berehalakoa eta sakona izan behar du, derrigor".

Baldintza bi horietako bata ere ez da bete, nahiz eta prozesatzeko autoaren kontrako apelazio-errekurtsoaren baitako ahozko ikustaldia hilaren 18an egingo den.

Leporatzeko oinarri sendo eta zehatzik gabe eta prozeduraren luzapenari, orain testuinguru berri bat gehitzen zaio, besteak beste, Estatuko Gobernuan alderdi politiko berri bat egotea; era berean, ETA-k hogeita bederatzita hilabetetan atentatu hilkorrik eragin ez izana eta Diputatuen Kongresuan, Talde Popularrak soilik kontra eginik, ondorengoa dion ebazpena onartu izana: "bortxakeriaren amaiera elkarrizketatu baterako baldintza egokiak ematen badira, beronen amaiera emateko borondate argian oinarrtua eta honen alde egiteko zalantzarik gabeko jarreratan oinarrtua, Gobernuak estatu eta bortxakeriarekin amaitu nahi duten indarrekin elkarrizketa prozesu bat sustatu eta babestuko du, une oro, eztabaida politikoak herri borondatearen ordezkari legitimoen bidez konpon daitekeenaren printzipio demokratikoa errespetatuz".

Kontestu berri hau ez da oharkabean pasa Estatuko Fiskal Nagusiarentzat, urte judicialaren haseran hau aipatu zuelarik, ezta gobernuan dagoen alderdiarentzat, lider batzuk egin dituzten adierazpenak medio, "mugimendu" eta "aukeraz" eta "saiatu" beharraz hitzeginez. Eusko Legebiltzarreko legebiltzar taldeok, araudiak aplikatzera doazen uneko errealitatearen arabera interpretatu behar direla pentsatzen dugu.

Botere judicialaren independentzia auzitan ipini barik ere, esan beharra dago *Euskaldunon Egunkariaren* kontra prozedura penala


Tras condenar los ataques a los derechos humanos cometidos por ETA, Amnistía Internacional advirtió entonces que "un acto tan grave como el cierre de un periódico y la detención de quienes participan en su producción tiene consecuencias claramente perjudiciales para el derecho fundamental a la libertad de expresión. Por ello, es imperativo que la investigación judicial que se lleve a cabo al respecto sea inmediata y exhaustiva".

Ninguno de los dos requisitos se ha cumplido en el momento actual, en el que está próxima -día 18 de noviembre- la celebración de la vista oral en los recursos de apelación contra los autos de procesamiento.

A la inexistencia de base sólida y concreta para la incriminación y a la ya prolongada duración del proceso, se suma ahora la existencia de un contexto nuevo, definido por el acceso de un nuevo partido político al Gobierno del Estado, la inexistencia de atentados mortales perpetrados por ETA durante veintinueve meses, y la aprobación, en el Congreso de los Diputados, de una resolución que -con el único voto en contra del Grupo Popular- declara que "si se producen las condiciones adecuadas para un final dialogado de la violencia, fundamentadas en una clara voluntad de poner fin a la misma y en actitudes inequívocas que puedan conducir a esa convicción, el Gobierno promueva y apoye un proceso de diálogo entre los poderes competentes del estado y quienes decidan abandonar la violencia, respetando en todo momento el principio democrático irrenunciable de que las cuestiones políticas deben resolverse únicamente a través de los representantes legítimos de la voluntad popular".

Este nuevo contexto no ha pasado desapercibido al Fiscal General del Estado, que ha aludido a él en la reciente apertura del año judicial, ni al partido gobernante, a tenor de las declaraciones pronunciadas por algunos de sus más relevantes líderes, que hablan de "movimientos", de "oportunidades" y de la necesidad de "intentarlo". Los grupos parlamentarios en el Parlamento Vasco pensamos que las normas han de ser interpretadas a la luz de la realidad imperante en el momento en el que vayan a ser aplicadas.

Desde el más absoluto respeto al poder judicial, advertimos que, en la apertura del proceso penal contra *Euskaldunon Egunkaria*,



irekitzekoan Alderdi Popularraren Gobernuaren bulkada izan zela. Oraingo testuingurua bestelakoa da, eta botere judizialari dagokio, bere independentziaren baitan, Legea bulkada politiko barik aplikatzea.

se dio un impulso político del Gobierno del Partido Popular, que trascendía la potestad de orientar la política criminal a través del ministerio fiscal. Ahora, en un contexto distinto y a la luz de las circunstancias anteriormente señaladas, tal impulso político debería desaparecer y es al Poder Judicial al que, desde su independencia, le incumbe aplicar la ley de forma acomodada a un nuevo contexto y a la realidad social que hoy existe.

Hori guztia dela eta, **legez besteko proposamen** hau aurkezten dugu:

Por todo ello, presentamos la siguiente **PROPOSICIÓN NO DE LEY**:


1. Legebiltzar honek adierazpen- eta informazio-askatasuna defendatzen ditu, oinarriko eskubideak baitira, gainerako giza eskubide guztien errespetua ere defendatzen duen legez.
2. Uste dugu ez dagoela Euskaldunon Egunkariaren kontra irekiriko prozedurari eusteko oinarri garbi, zehatz ezta sendorik.
3. Uste dugu, baita halaxe adierazi ere, kausa eta prozedura behin betiko arxivatzea dela Legearen barruan hartu beharreko erabakia. Honela, legearen aplikazioa egungo errealitate sozialera egokitzeaz gain, prozedura judizial batean inoiz eman beharko ez zitekeen bultzada politiko bat zuzentzeko eta Euskal Herriko pakegintza eta normalizazio politikoan aurrera egiteko laguntza handikoa litzateke.


1. Este Parlamento defiende la libertad de expresión y de opinión como un derecho fundamental, basado en el respeto a todos los derechos humanos.
2. Consideramos que no existe una base clara, concreta y suficientemente sólida para el mantenimiento del proceso abierto contra Euskaldunon Egunkaria.
3. Expresamos públicamente la persuasión de que el sobreseimiento de la causa y el consiguiente archivo del procedimiento, constituirían decisiones judiciales que, además de acomodar la aplicación de la Ley a la realidad social presente, contribuirían a corregir un impulso político que nunca debió darse en un proceso judicial y serían una gran ayuda para avanzar en la pacificación de Euskal Herria y su normalización política.


PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA: Epaiketa hilaren 18an hasiko delako.

JUSTIFICACIÓN DE LA URGENCIA: Debido a que el juicio comienza el día 18 del presente mes.


Vitoria-Gasteiz, a 04 de noviembre de 2005


Susko Abertzaleak


Euzko Abertzaleak


Euzko Abertzaleak


ARALAR


Euzko Abertzaleak